

**IURRETA-DURANGO-ABADIÑO HERRIGUNEA HOBETZEKO
LANETARA BISITA**

Durango 2013.18.01

Lehendakariaren hitzaldia

Egunon Guztioi,

Bizkaiko Ahalduen Nagusia, Iurreta eta Durangoko alkate jaun eta eta andereak-
Sailburua, egun on,

Aspaldiko eskaera baten aurrean gaude eta gaur aukera historiko baten aurrean gaude. Aukera historiko bat Durangok 60.000 metro karratu berreskuratu egiten dituelako, 60.000 metro karratu horietatik 25.000 metro karratu hiri parkerako izango direkalo. Aukera historiko bat beraz Durangoren hiriaren erakaldetarako, hiri erakaldetarako; eta aukera historikoa erakunde guztien koordinazioari esker.

Proiektu hau, Durango proiektua, erakunde ezberdinen artean koordinazioari esker hasi egin zelako eta gaur horretan azpimarratu egiten dugu. Beharrian bat daukagu, beharrezana da garraio politika bateratu bat izan ahal izatea, eta beharrian horren aurrean Eusko Jaurlaritzak konpromezu bat agertzen du, garraio politika koordinatu baten konpromezua adierazten du.

Eta horretarako konpromezu hori garatu egin ahal izateko, eusko jaurlaritzak planteatzen duena da 2020 bitarteko garraio eutsigarri; garraio eutsigarri esan nahi dugunean, jasangarria, beste modu batean esanda, garraio eutsigarriaren plan zuzendari berri bat, eratzea eta garatzea, da Eusko Jaularitzaren konpromezua helburu horretan.

Bestetik badakigu zein egoeratan gauden eta egoera honetan nahikoa izango dugu gaur egun arte hartutako konpromezuei eutsi egin ahal izatea azpiegituretan, eta horretarako ere, gure elkarlana eskaintzen dizkiegu gainontzeko erakundeei, eta elkarlan honen arabera ere planteatzen duguna da politika bateratu horretan bilete bakarraren beharrezana, aipatu egin dut, política... garraio politika bateratu bat, garraio politika koordinatu bat eta horrek eskatu egiten du kalitatezko zerbitzu bat eskeini nahi baldin ba dugu eta denon arteko elkarlaguntza azpimarratuz, denon artean eskaini egin nahi baldin badugu planteatu egiten dugu ere bilete bakarrarena eta horretan konpromezu hartzen du Eusko Jaurlaritzak ere.